

Gazteluak gailurra koroatu du



Bost mendeko negualdiaren ostean ernatu da Irulegiko gaztelua (Aranguren bailaran). 1494an, orduko Nafarroako errege-erreginek eraikina botatzea erabaki zuten arrazoi estrategikoengatik. Ama-lurrak bere baitan gorde zituen gazteluaren aztarnak; arima, berriz, bizilagunen oroimenean egon da bizirik. Herritarrek gaztelu berreskuratu dute, eta, hala, Nafarroako historiaren puzzleari pieza garrantzitsu bat itsatsi diote. **Arkaitz Almortza. Argazkiak: Aranzadi Zientzia Elkartea.**

Haizearen **zurrunbiloak** urratzen du Irulegi gailurreko (893 metro, Aranguren mendilerroan) isiltasuna. Oinek aurrera egin ahala, azkar antzematen da leku bere dela. Halaxe baieztatzen dute alde batera zein bestera dauden zuhaitzek, ahapeka Erdi Aroko kontuak baitakartzate. Muinoan, Lakidain eta Ilundain harriak (Aranguren ibarran) Lerrutzi (Lizoain bailaran) eta Idoateri (Izagaondoa ibarran) ematen diete eskua. Tontorren erdialdean, **sastrakek** harro erakusten dute urtean gorde izan duten altxorra. Hurbildu bezain pronto, mende luzez lozorroan egondako harriak nafarren hizkuntza zaharrean mintzatzen hasten dira, eta Irulegi gazteluaren iragana dute mintzagai.

Indusketa arkeologikoak egiten hasi zirenetik, 2006tik **aitziner**a, hamaika konturen berri eman dute harriek. Gazteluaren sorrerari buruz, baina, ia ez dago informaziorik eskaini. Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologo Mattin Aiestaranek **zuhurra** izan nahi du, eta ez da ausartzen gazteluaren sorrera urtea zehaztera. *garaian, Burdin Aroko herrixka bat zegoen. Aurkitu ditugun datazio batzuek datu hori berretsi dute; hau da, orduko lur mailak edo ikatz zati batzuk topatu dituzte gerora gaztelua eraikitzeko zabalduko zituztenak*” azaldu digu Aiestaranek.

Inguruak, ordea, argi azaltzen du zein izan zen gazteluaren betebeharra. Bistan da lekua guztiz estrategikoa dela: albo batean, Iruñerri osoa eta hiriko sarrerak ikusten dira (egun, Iruñetik gaztelua ikusten da), eta, bestean, Agoitz eta Pirinioetako sarbideak. *“Etsaia datorrenean, abisua azkar eman daiteke*”. Beraz, Irulegi babeserako sare bateko gaztelua izan zela esan daiteke, Ezkabako, Miravalleseko (Uhartea) eta Larunboko gazteluekin batera.

Gaur arte iraun duten aztarnak, baina, gazteluaren azken garaietako egiturak dira. Hastapenetan, Iruñeko Erresuma sortu zenean, *“zeina ez zen geroago berrindartua, eta azkar eraso zitekeen”*, muga bertan egongo zen, ziurrenik, eta Irulegi mendiko tontorrean egon zitekeen eraikinak babeserako paper garrantzitsuak izango ziren. Gerora, erresuma egonkortu eta zabaldu zenean, barne zaintzarako tresna bihurtu zen.

Gazteluak izaera militarra ere hartu zuen, eta Nafarroako Erresumaren historiako hainbat **liskarren** lekuko izan zen, baina ez testigu ukigabea. Izan ere, eraso hainbatetan konpondu behar izan zuten, gerran ondorioz txikituta geratu zelako. Horixe diote orduko aguriek. 1378an, esaterako, Gaztelarekin izandako borroka ostean konpondu behar izan zuten. Helburu militarrek betetzeko ez ezik, garaiko alkaideak eta haien senideak bertan bizitzeko ere balio izan zuten, 1378ko dokumentuen arabera.

Hala ere, Nafarroako konkistaren hasierako gertakariak jarri zuten gaztelua historiaren jomugan. Agaramontarren (Nafarroaren aldekoak) eta Beaumonten (Gaztelaren aldekoak) arteko gerra zibilaren ostean, eraikina bigarren esku geratu zen. 1494an, Nafarroako koroak gotorlekua berreskuratu zuenean, orduko errege-erregin Joan III.ak eta Foixeko Katalinak gaztelua suntsitzeko agindua eman zuten. *“Ez zuten etsaiek erraz-erraz eskura zezakeen gaztelurik nahi erresuratu hiriburutik hain hurbil. Ez zuten erabat kontrolpean, ordu arte etsaiarena izan zelako, eta uste zuten beren kontra bihurtu zitekeela”* diosku Aiestaranek. Urte horietan denboran izoztuta geratu zen Irulegiko gaztelua, argia berriro noiz ikusiko zain.

Iragan berreskuratua

Eraikinak bost mende eman ditu iluntasunean. Haren argiak, baina, pizturik jarraitu du inguruko bailaretako herritarren artean. Aranguren herriko Ruben Illarrak txikitatik ezagutzen du gazteluaren arima. *“Gure arbasoek gazteluaz hitz egiten ziguten, baina ez genuen espero aurkitu dugunarekin topo egitea”* azaldu dio irulegiar aldizkariari. *“Ikaragarria izan da”*.

2005ean, jakin-minak kosk egin zion. Hala, ibarreko lagunak auzolanean elkartu eta gazteluaren ingurunea miatzen hasi ziren, belarrez josita baitzegoen. *“Mugitzen hasi ginen, eta, bat-batean, harlandu handi bat topatu genuen, dorre nagusiari zegokiona. Ondoren, poliki-poliki, ingurua aztertu eta uharka topatu genituen. Harriak hitz egiten hasi ziren eta, beren hizkuntza hobeki ulertzeko, Aranzadi Zientzia Elkartearrekin jarri ziren harremanetan, 2006an.*

Hamar urtez ibili dira lanean Irulegi gailurrean. *“Guztia atera edo berriro estali behar genuen, aztarnategia babesteko”* dio Iruñeko. Aranguren ibarrak hasieratik du bat proiektuarekin, eta urte hauetan guztietan diru-kopuru bat eman izan du indusketa lanak aurrera ateratzeko. *“Auzolana izan dugu ardatz. Bizilagunek handia egin dugu gure bailarako gaztelua berreskuratzeko, eta horrek bizilagunon arteko batasuna indartu du; oso garrantzitsua izan da”*.

Herritarren eta Aranzadi Zientzia Elkarteko lagunaren artean egindako lanari esker, Nafarroako Erdi Aroko gaztelu baten aztarnategi sendoa berreskuratu du, mendeen. Mattin Aiestaranek azaldu legez, dorre nagusiak zintzen du ingurua. Horrez gain, harresi nagusia dago, eta bost dorre txiki ditu; horietako bat, ekialdekoa, hain zuzen, kapera bat eraikitzeko erabili zuten, aldea baitu. Ur putzua ere badu gazteluak, *“setio batean irauteko, ura ezinbestekoa baitzen”*.

Harriek gazteluaren egitura nolakoa zen irudikarazten digute. Baina egituraren gaineko informazioa eskaintzeaz batera, Irulegiko aztarnategiak garaiko bizilagun berri ere eman du indusketetan. Adibidez, gerriko baten belarria topatu dute, baita hainbat apaingarri ere. *“Nahiko bitxiak dira, ez litzuke edonork jantziko hartan”* dio Aranzadiko kideak. Halere, aurkikuntza guztien artean bitxiak hezurrezko dadoak dira: *“Ez dira hain ohikoak. Kontuan hartuta soldaduen egundakoa bizimodua nolakoa zen, honelako materialak erabiliko zituzten beren aisialdian”*.

Indusketa lanek iraun duten bitartean, aldi berean egin dira arkeologia lanak eta zaharbertzakoak. Nafarroako Gobernuaren teknikariak ere prozesuaren jarraia egin dute. Une honetan, inguruan zehar hainbat informazio panel daude, gazteluaren nondik norakoak berri emateko. *“Jendeak ez baldin badaki zer egin dugun zertan ari, garen ere, gure lana ez gara ongi egiten ari”* azpimarratu du indusketaren azken urteotako zuzendariak.

Irulegiko gazteluak Nafarroa osoan eragin du interesa. Orain, bisitak kudeatzen hasiko dira, aztarnategia ezagutzera emateko. Hala, bizilagunek antzinako errege ezagutzeko parada izanen dute, eta webgune bat ere abian jarri dute informazio guztia eskaintzeko: www.irulegi.eus. Bost menderen ostean, ahul iritsitako gaztelua sendo eta gogotsu argiztatuko du Irulegi.